












2,40 €

2006ko abuztua - iraila



164-165



IRUDI
HITZEN
BILUZTASUNA

BILUZTASUNA
HITZETAN
IRUDIETAN





Jai zoriontsuak eta
amets freskagarriak



koltxoak - somier artikulatuak
izarak - koltxak...

Madre Vedruna kalea, 18
Vitoria-Gasteiz
Tl. 945 133 838

www.laescueladeldescanso.com

ENSUEÑOS

ezker independentea

ONDO PASA
JAIK,

AHAZTU GABE
EZ DAUDENAK



aralar

ezker independentista

www.aralar.net

araba@aralar.net

945 252631

biluztasuna... irudi eta hitzen biluztasuna...
biluztasuna hitzetan eta irudietan... biluztasunaren
arte... euskararen artea... ideiak, kontzeptuak, hitz
eta irudi jokoak... biluzik, biluztuz



BILUZTASUNA
MUGAK
TABUAK
INDARKERIA
(IN)KOMUNIKAZIOA
UMOREA
ASKATASUNA
HERRIAK
ESKUBIDEAK
KULTURANIZTASUNA
LAGUNTASUNA
MAITASUNA
EUSKARA
ALAITASUNA
JAIK
AMATASUNA
OKUPAZIOA
BIZITZA
ESTETIKA
SEXUA
GIZARTEA
...

GEU

udako alea

ezer baino lehen, ESKERRIK ASKO parte-hartzaile guztiei. plazer bat izan da zuekin guztiokin lan egitea

- >alearen koordinazioa Et zuzendaritza artistikoa: estitxu breñas glz de zarate
- >argazkiak (arlo tekniko Et artistikoa): edorta sanz / argazki guztiak arabako argazki elkartearen estudioan egin dira
- >testuak: edurne begiristain, josune verez de mendizabal, maite lekue, saioa fdz de arangiz eta estitxu breñas glz de zarate
- >kolaborazio bereziak: idoia zabaleta, eloi beato, belen nevado, javi huete, gari, jabi otsoa de alda, oihana zabaleta eta inigo esnaola
- >testuen zuzenketa, orrazketak eta itzulpenak: estitxu breñas glz de zarate
- >maketazioa: dalvez
- >komikia eta marrazkiak: inigo sarasola
- >araba bixotzian: cristina fernandez
- ale hau paper ekologikoz egina dago-

GEU aldizkaria | GEU Elkartaren ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkariako taldeak egina, bideratua eta kudeatua | erredakzioa: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | e-mail: geugaste@grn.es geu@geugasteiz.com | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | aldizkariako batzordea: josune verez de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estitxu breñas eta david alvez | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



beste:

azkena rock festival ' 06

(35-38)


abuztu eta iraileko agenda

(40-41)

gasteizko jai egitaraua

(gehigarria)

vitoria-gasteiz
azkena
rock festival



www.geugasteiz.com | geu@geugasteiz.com | geugaste@grn.es



EGUR
Zurezho Teiltuak
Muntaiak Garabiarekin
eta Berrikuntzak

Padurea kalea 12, 16 Pab.
Goian Poligonoa, Legutiano
01171 Araba
Tel.: 627 417 747
Faxa: 945 465 921
montajesegur@euskalnet.net

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz



ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net



eusko
alkartasuna

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea



Gazte
Abertzaleak

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Euskeraz Araban BAI


Argazki - Estudioa
Erramun
Heradio Fournier, 23
Tfno: 13 71 02
01006
Askatasun kalea, 5
Tfno: 26 19 91
01004

HEGOALDE
Euskaltegia
Matrikula zaitetz !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ




APAINDURA
Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

IRUDI & HITZEN
BILUZTASUNA
HITZETAN & IRUDIETAN



Biluztasunaz hausnartuz GEU aldizkariaren edizio honetan paragrafo bat idazteko, biluztasuna esperimentatzeko nire eraren inguruko kontraesan bat matxinatzen zait.

Hondartza nudista batetik idazten ari naiz. Nire toallan, biluzik nago. Alabaina, hondartzako mutur batetik bestera paseatzera noanean, bai eta bainatzera noanean ere, nahiago dut bikiniaren “beheko partea” jarri. Lotsa izango ei da, begiradaren lotsa.

Sortu ditudan (beste lagun batzuekin batera) azken dantza piezetako hirutan gorputza biluzik aurkezten da.

“Puta Inocencia”n emakume batek (nik neuk) strip-tease bat egiten du, “Gata sombra”n emakume bat biluzik pausatzen da diban batean, “Dueto”n emakume batek (nik neuk) biluzik dantzatzen du, bere gorputza hari gorri batean desitxuratuz. Eszenan ez dut lotsarik. Poterea izango ei da, begiradaren poterea.

Biluzik idazten ari naiz hondartza nudista batetik. Biluztasunaz hausnartuz poterea eta lotsaren arteko tirabira gunee bat matxinatzen zait, aztoratu eta nire buruari biluztasunaz galdetzen jarraitzera gonbidatzen nauena. Nola biluzi begirada?

IDOIA ZABALETA



Hitzak ezean...barrea.
Hizkuntza ulerkorra, unibertatsala.
Artea lez...pertsonek sentimenduen isla...
Barre egin edozertaz. Biziari ere bai.
Geure buruaz. Barre egin aske sentitzeko.

SAIDA FDZ DE ARANGIZ



Zetazko soka ikusezinak biltzen
gaitu. Zu, ni, hura, gu. Eskuekin
bildu. Besarkada. Maitasuna.
Komunikazioa. Fideltasuna.
Beharra. Konfiantza. Askatasuna.
Zu, ni, hura, gu. Lagunak.
Lagundu. Lagunduko dizut.
Lagun iezadazu. Laguntza behar
dut. Hatoz, nire ondora, babestuko
haut nire magalean, LAGUN.

EDURNE BEGIRISTAIN



Lagun zaitut. Lagun nauzu. Zaituztet. Nauzue.
Lehenengo, barre egin nahi dut. Hitz egin, ondoren. Malkoak isuri, batzuetan.
Eta barre egin berriro. Eta hausnartu. Eta berriro komunikatu. Eta isilik egon.
Eta kontatu nahi dizut. Dizuet. Dantzut, dantzuzue. Eta barre egin, atzera.
Eta ondo sentitu. Jare. Lasai. Bizirik. Pozik. Maitatu(a). Sentiarazi.
Gozatu. Gozarazi.
Nago. Zaude. Lagun zaitudalako. Lagun nauzulako. Zaituztedalako.
Nauzelako. Lagun.

ESTITXU BREÑAS GLZ DE ZARATE

aah... zein naiz ni?... mmmm...
ERREGEAAA!!... ERREGEAAAAA!!!... ummmm... bai.
...Txitxo Amili... eeehh... ahaztu baino lehen...
jhaaa... garagardo bat mesedez...
...mila esker... (txintxo ibili)

GARI





ZELEDONEN JAITSIERARAKO

ARROPA ARRATSALDE BEROTSU BATEAN

Txapela alde batera okerturik, 'a medio lao', eguzkiaz eta xanpainaz babesteko. Utikan kapelatxo publizitarioak edo antzeko txorakeriak..., publizitatea egin diezaiegun nahi badute, ordain dezatela.

Jaietako zapitxoak. Funtsezko pieza piura horrekin paseatu ahal izateko, agintaritzarekin arazorik izan gabe. Aldi berean, izerdia, isuritako kalimotxoa, edo malkoak, mozkor tristeak jotzekotan, lehortzeko ere balio dizu.

Puru on bat, prefosta. Gauden garaietarako, 25.000 puru batera pizteak bere trufa badu.

Piszinarako txankletak. Batez ere beirekin moztu ez zaitezten. Eta pinrreleak hala bai fresko doazela, gutxira galtzerdi lodi eta abarken aste gogorra datorrela.

Behar-beharrezkoa baino ez eraman:

Etxeko giltzak; gainontzekoak kanpora (buzoia, ganbarrak eta beste), ezertarako balio ez dute-eta, eta gainera pisatzen dute.


50 euro boterako. Gakoa botea garaiz jartzean dago eta, beraz, zu ez izatea eramango duena.

Kondoi bat, badaezpada. Badakizue, jaietan eta Gabonzaharrean batek daki!

Giltzak, billetea eta kondoa txapelaren forruan eraman ditzakezu. Kontuz, cuidao, galtzearekin.

Ah! Eta **jertse bat** gerrian lotuta. Badaezpada ere freskatuko balu...

ELDI BEATO



Sorbalda gainean
Bizkarroi lez
Iletik tiraka
Haitzulotarrak imitatuz
Bizi zama sostengatuz
Etxean eta lanean
Murgildurik
Gutxietsia batzuetan
Umildua hainbatetan

Baztertua munduko zenbait txokotan
Isildu eta mututua
Ikustezin askotan
Ez aldiz ukiezin
Genero indarkeriaren biktima
Emakumea, emakume izateagatik.

MAITE LEKUE

Gizatiarra,
Mundu zabaleko hiritarra
euskal herritarra
Auzokoa eta bizilaguna
Mestizajea eta arraza bilketa
Afrikako erritmoaren anaitasuna
Kulturaniztasunaren aberastasuna

MAITE LEKUE



Jabetza pribatua zalantzan jartzeko eta beraren kontraesanak ateratzeko: OKUPAZIOA.

Espekulatzaileei aurre egiteko: OKUPAZIOA.

Kontsumismo sistemaren alternatiba: OKUPAZIOA.

Autogestioa bultzatzeko: OKUPAZIOA.

Auzo eta herrien bizitza eta identitatea berreskuratzeko: OKUPAZIOA.

Bizi eredu eta eraldaketa sozialerako: OKUPAZIOA.

Antolakuntzaren alde: OKUPAZIOA.

Jendearen parte-hartzea bermatzeko: OKUPAZIOA.

Betiko eskemekin apurtzeko: OKUPAZIOA.

Ezarritako arauetara buelta emateko: OKUPAZIOA.

Erakundeek asetzen ez dituzten beharrak asetzeko: OKUPAZIOA.

Etxebizitza guztiontzat aldarrikatzeko: OKUPAZIOA.

EDURNE BEGIRISTAIN



Gora. Maldan gora, bizitzan, pertsona gisa.

Gora ere pobrezia, norberekeria, desberdintasunak pertsona, gizarte, kulturen artean.

Gora oztopoak, duintasun falta. Gora doaz. Gorantz.

SAIOA FDZ DE ARANGIZ





Alua. Uzkia. Masturbazioa. Emakumeen masturbazioa.
Bisexualitatea. Pornografia. Drogak. Zenbait droga. Zainetatik
sartzen den droga. Zenbatean dago gramo bat? Heriotza.
Heriotzari beldurra. Metastasisa. Buruko gaitzak. Eutanasia.
Prostituzioa. Mairuak. Ijituak. Burka. Biolentzia. **Tabu**

EDURNE BEGIRISTAIN





Gure iraganeko irudiak begiztatzen nire bizitzako historia ikusi dut. Aldaketa nabaria bai fisikoan baita nire begiradan ere. Gazteagoa, begi-bistan, askozaz gazteagoa hainbat zentzutuan, ez ordea, begi-bistan. Horren guztiaren atzean ni izan naiz beti, diot... Osatzen noan puzzlearen piezaren kolorea egunaren arabera hautatzen dudalarik. Gaur ni naiz, nire burua ezagutzeko gai naiz. Bihar auskalo. Denbora, izana.

Hala ere, erori eta altxatzeko eskua, bihotza, maitasuna, pertsona bere sendotasunean, sustraiaetik gora. Errotazioan norabidea ez galtzeko argi izpia. Ederrena. Zorionekoa.

JOSUNE VELEZ DE MENDIZABAL

“Nonahi aurkitzen ditugu kateak. Gizartearen esklaboak gara;
bere erakundeen, bere bidegabekerien, bere dogma eta ohituren esklaboak.
Gure gorputzaren morroiak gara; bere grinena, bere ahulezia,
bere piztikeria-arrastoaren morroiak”.

(ISAAC PUENTE. PENTSALARI LIBERTARIOA)

MAITE LEKUE



Zer ote amatasuna?

Nire amaren alaba naiz; baita nire amamen biloba ere. Nire ilobaren amaren ahizpa naiz; baita Unai, Markel, Oihan, Ibai, eta Harkaitzen amen adiskide mina ere. Ni ez naiz ama; aitzitik, amatasuna hurbiletik gozatu dut, eta ikasi dut amatasuna ez dela idealizatu behar, baita amatasuna ulertzeko kolore oso desberdinak daudela ere. Poza, irria, beldurra, maitasuna, malkoak, tristura, beroa, indarra, nekea, ardura, goxotasuna, duda-mudak, samurtasuna, zirrara, bizitasuna: hala irudikatzen dut nik nire amatasuna. Noizko, ordea? Neska bada, Lili, eta mutila izanez gero, Beñat.

OIHANA ZABALETA






Sexua oso ondo dago.
Maitasuna ere oso ondo dago.
Baina bi gauzak elkartzen direnean,
nahasketa eztandagarria sortzen da,
desira kristorena izatea dakarrena.

BELEN NEVADO & JAVI HUETE

bidaia bat egitera noa, marrazki bidaia bat, eta zure geografiaren mapa ibiliko dut.
zu zure gorputza zara, zu zure azala zara. behetik gora, goitik behera, alde batetik eta bestetik...
irudien baso hostotsu horretan kostatzen zait urrats arinak ematea, ez dakit nondik hasi gainera,
aurrera eta atzera noa uneoro... labirintoan nago. zure azalaren labirintoan...
amaierarik ba ote du bidaia honek? ...ez dut uste, atlasa amaitzeke dago-eta...

ESTITXU BREÑAS GLZ DE ZARATEJ





“lili bat hartu eta hostoz hosto erantzi,
eta harek zu ere amets, eta harek zu ere erantzi...”


lili bat hartu eta hostoz hosto ureztatu

euskara hartu eta hitzez hitz erantzi
eta harek zu ere amets, eta harek zu ere erantzi...

EUSKARA hartu eta hitzez hitz ureztatu...

...EGUNERO

(MIKEL LABOAREN 'LILI BAT' KANTUAN DINARRITUA)
ESTITXU BREÑAS GLZ DE ZARATE




Zigorraren gainean zigortzen baduzu
Bikoitz zigortzen duzu
Eta justizia deitzea eskatzen didazu!?

...

Momentuz,
Beste IzeN bat asmatzera noa...

JABI OTSOA DE ALDA



“Badirudi mespretxu ardatz bi daudela gure munduan:
bata iparraldetik hegoalderantz doana, eta bestea
mendebaldetik ekialderanzkoa. Ipar European hego
europarrak gutxiesten dituzte; Hego European Ipar
Afrikako “moroak”; ipar afrikarrek Saharaz bestaldeko
beltzak. Bestetik, Mendebaldeko European turkoak erdi
zorotzat dauzkagu; Turkian esaten zidaten kontu handiz
ibiltzeko irandar fanatikoekin, eta irandarrek afganoak
arbuiazen dituzte. Ez dakit afganoei inor gutxiesteko
adorerik geratzen ote zaien, txinatarrak agian?”

(EKIALDEKO MAMUAK, ION ARRETXE)

SAIDA FDZ DE ARANGIZ



Ez dute Eskuek bakarrik
laztantzen, maitatzen...

Begiek

Hitzek

Keinuek

Ahoak

Belarriek...

ere fereka, laztan,
maíta gaitzakete.

[ESTITXU BREÑAS GLZ DE ZARATE]



Autodeterminazio eskubidearen etsaia da beldurra. Herriak aske hitz egiteari beldur dionak ukatzen du erabakitzeko eskubidea. Eta beldurrak ez gaitu aske izaten uzten. Ez norbanako gisa, ezta herri gisa ere. Izuari aurre egiteko modua indarrak metatzea da, erabakitzeko eskubidearen aldeko indarrak metatzea. Euskal Herrian ez ezik, munduko herri guztietan behar dira indarrak metatu: Kapitalismoaren aurka, bidegabekerien aurka, ideien kriminalizazioaren aurka, eskubideen urraketen aurka, hizkuntzen zapalkuntzaren aurka...

EDURNE BEGIRISTAIN



Gaur egun elkarrekin etxean bizi garenak gara gu. Elkarrekin ordu mordoxka ematen ditugunak jatorduetan, jolasean, erosketatan, mendian, errietan, barre egiten, ipuinak kontatzen...

Ainhoak esango luke alutxo ta pitito koadrilatxoa garela. Gustuko ditugun gauza txikietan eta handietan ahalik eta gehien disfrutatzen saiatzen garenak. Disfrutatu gabe geratzen diren egunak nolabait galdu egiten direlako.

Azken lau urte eta erdi arin pasatu dira. Tarte honetan gauero-gauero ilunpetan lapurtzen dizkiegun muxuekin batera, ezinezkoa da irribarrea ezkutatzeara.

Errietan edota barrez, elkarri mimoak emanez.

IÑIGO ESNAOLA


Dunaren hareak haizearen mugimenduaz dantza egiten du.
Ezinezkoak diren irudiak marrazten ditu.
Denboraren ferekak paisaia harrigarriak uzten ditu.

SAIOA FDZ DE ARANGIZ



Tangenterik
ekiditen duen landroverran
popopopopopopopo
Kondairen arimari eta karmari ipuinak idatzi
dizkien lurraldean sortuak
Enredos jolasaren ekialde urruneko bertsio kosmikoa
Adan eta Eba Dan Brownez trufaka
Desiratzen zaitudan zu eta utopizaturiko ni

Biraka burua
Taupadaka bihotza
Moviment
Sugea
Munduari eragiten dion begia
Erlojuaren orratzak
Iturriaren ura
Ipar burua hego burua
Bibolina bapo jotzen duen neskaren
izen bereko erlijioa



Komunikaziotik inkomunikaziora ez dago ezer.
Bidea laburra da oso.
Hitzak, begiradak, laztanak, musuak, usainak...
Inkomunikazioa krudela, latza da.
Komunikazioa, izakien tresna naturala,
bizirik sentiarazten gaituena.

SAIDA FDZ DE ARANGIZ





Plazentaren beroa senti dezaket.

Nire erraietatik emitituriko lehen oihua gorra da.

As ovellas adoitan parir tras cinco meses de xestión. (Beeeeee...)

Gizaki osoa naizenetik segunduak besterik ez eta arnas falta dut jadanik.

Existen máis de 800 tipos de ovellas no mundo.

Babeleko dorrea

eusten duen harri txikiena izanaren pisua...

beltza,

latxa,

baita zoritxarreko dolly-a ere...

máis de 800 tipos,

máis de 800 oihu gormutuak,


beeeeeeeeeee...

jaioa naiz, baldin eta bada,

bada baldin eta, baldintzapeko

askatasuncan.

JOSUNE VELEZ DE MENDIZABAL



...Gizonak badu inguru latz bat menperatzeko premia,
burruka hortan bizi da eta hori du bere egia...

...Gizonen lana jakintza dugu: ezagutuz aldatzea,
naturarekin bat izan eta harremanetan sartzea...

...Eta indarrak ongi errotuz, gure sustraiak lurrari lotuz,
bertatikan irautea: ezaren gudaz baietza sortuz,
ukazioa legetzat hartuz beti aurrera joatea...

...Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak,
burruka hortan iraungo duten zuhaitz-ardaska gazteak...

Beren aukeren jabe eraikiz ta erortzean berriro jaikiz
ibiltzen joanen direnak: gertakizunen indar ta argiz
gure ametsa arrazoi garbiz egiztatuko dutenak...

(MIKEL LABOA. IZARREN HAUTSA)

MAITE LEKUE



Eta hortxe zaude irribarrez
 etorkizuna margoztatzen
 larru gorriz
 gaurkotasunaren islada koloreztatzen
 ispiluaren aurrean
 bibolin morearen
 gozamen doinuetan
 zure lasaitasunaren
 biluztasun isladan.

MAITE LEKUE

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ



**XABIER
AIZPEOLEA**

HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

El Clarete

JATETXEA



UNAI ETA PATXI FERNANDEZ DE RETANA
ZERKABARREN KALEA, 18

01008 GASTEIZ

945 263 874

IRVSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

Mateo Moraza 19

Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak



Zure arropa eta oinetakoak

www.sariudenda.com

Kutxillera, 27 • Gasteiz • 945 260 710



Erquiditan, astaldenezik osteralari

**JANTOKI
VEGETARIANO**

SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL.: 945 27 68 33

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65

Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

ARTEPAN
Artisau



Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37

01005 GASTEIZ

**EYSKAL LABELA
LASAGABASTER**

harategia eta urdaitegia

Gasteizko

haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24

Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

Heldu da eguzkia...



Eguzkitarako edozein betaurreko
erosten duzula ere, Mendia Optikak

erloju zoragarri hau

OPARITUKO DIZU

Eta orain eguzkitako

betaurreko graduatuak **65€etatik**

CHANEL PRADA Ray-Ban arnette Silhouette
Calvin Klein FENDI VOGUE Pepe Jeans bonardi


Promozio hau 06/05/01etik 06/08/31ra egongo da indarrean, edo erlojuak bukatu arte.

**150 URTE
BETE DITUGU**
1856-2006
ikus dezazun

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

vitoria-gasteiz **azkena** **rock festival**



Mendizabalako lurretan egiten den rock festibalak bere bosgarren edizioa gauzatuko du aurten. Rockaren zaletuek Gasteizen duten hitzordua **abuztuaren azken egunean hasi eta irailaren 2a bitartean** gauzatuko da. Kartelean denetarik aurki daiteke aurten, Pearl Jam, Iggy Pop eta New York Dolls rock izar klasikoetatik hasita, besteak beste, Wolfmother, Sharon Stoner edo Kriston apustu berrietaraino. Rock estilo eta jatorri desberdinak Azkena Rock Jaialdian, are desberdinagoa izango den publikoaren aitzinean. Iraileko lehen asteburu horretan, rock musika giropean festa segurtaturik geratzen da Mendizabala inguruetan.

AZKENA ROCK JAIALDIA, BOSGARREN ALDIZ GASTEIZEN

[maite lekue & erredakzioa]

2002. urteko hastapenetatik, Azkena aretoan 3.000 pertsona inguru batzetik, Mendizabalako esparruan 32.000 pertsona inguru batzeraino iritsi zen jaialdi hau azken urtean. Bertako eszenatokiaren gainean rockaren historiaren parte izan diren hainbat talde izan dira ikusgai, besteak beste, Iggy Pop eta The Stooges, Deep Purple, The Flamin' Groovies, MC5, Queens Of The Stone Age, Ray Davies, The Pogues, Television, Turbonegro, The Cramps, New York Dolls, Wilco eta Muddhoney, adibidez.

aurtengo
edizioko
batzuk



>>>Buckcherry

Buckcherry taldea Los Angelesen sortu zen 1995. urtean. Taldearen izena zeraman diskoaz estreinaldia egin zuten eta baita arrakasta itzela lortu ere, abesti satsu eta garrantzez osatua izan zena. Taldeko partaideek distortsiorik gabeko ahotsez eginiko rock&rolla, elektronikagabea eta iruzurgabea, egiten dutela diote. '15' lan berriak egungo Hard rockaren mailarik gorenera eramandu taldea. Rock & Roll gordina eta zuzeneko ikaragarria.

www.buckcherry.com

>>>Redd Kross

Jeff eta Steve McDonald anaiek 80 hamarkadan euren nerabezaroan eta pop kulturaren eraginpean sortutako taldea dugu Red Kross. 'Neurotica', 'Third Eye' edo 'Phaseshifter' dira haien diskorik osatuenak, eta 90. hamarkadan, 'Show World' diskoarekin, haien ibilbide musikaren goi-maila lortu zuten. Egun, berritzailea den kontzertu bat eskaintzera dator Redd Cross rock banda, disko berri baten agintzaz.

www.reddkross.com



>>>The Nomads

Estokolmotik datorkigun taldea da The Nomads. Garage-rock musikaren berrestreinaldia gaitututa, zuzenekoan ipintzen duten bizi eta grina eskaintzera datoz. Eragin anitzeko taldea da, punk, heavy-metal zein bluesaren iturrietatik xurgatzen dutelarik. Bandaren lehenengo diskoa Sonics taldearen 'Psycho' lanaren remake bat izan zen eta ondoren, 'Where The Wolf Bane Blooms' kaleratu zuten Europatik zehar bira bat eginez.

Harrezkeroztik Eskandinaviako Nomads taldea rokaren kondaira bilakatu da, adibidez, Hellacopters, G luecifer edo Turbonegro taldeengan eraginez. Rock&Rollaren klasikoak.

<http://members01.chello.se/nomads>





azkena rock jaialdia 2006

www.azkenarockfestival.com

noiz Abuztuak 31 / Irailak 1 / Irailak 2

kartela pearl jam, iggy pop & the stogges, new york dolls, buckcherry, redd kross, the nomads, my morning jacket, big star, gang of four, the bottle rockets, diamond dogs, marah, wolfmother, kim salmon & the surrealists, berri txarrak, eagles of death metal, young fresh fellows, uzzhuaia, sharon stoner, kriston.

txartelak -3 egunetako txartelak: 100 + banaketa gastuak

-Irailaren 2ko txartela (Pearl Jam): 50 + banaketa gastuak

>902150025 / www.ticktackticket.com

akanpalekua mendizabalan

3 egunetarako erosten diren bonuek zein egun bakarerrako erosten diren txartelek akanpalekua doan izango dute. Kanpina abuztuaren 30ean irekiko da, asteazkenarekin, eta igandera arte (irailak 3) zabalik izango da.

talde parte-hartzaileak

Honako taldeek bisitatuko gaituzte aurtengo edizioan, AEBetatik datoz horietako asko:

lehen aldiz ARFn

- >Berri txarrak. Lekunberri. EH. www.berritxarrak.net
euskal rockaren abangoardia
- >Big Star. AEB. www.rykodisc.com
power-poparen ordezkariak
- >The Bottle Rockets. AEB. www.bottlerocketsmusic.com
underground amerikarra
- >Eagles of Death Metal. AEB. www.eaglesofdeathmetal.net
dibertsioa eta katxondeoa nonahi
- >Gang of four. AEB. www.gangoffour.co.uk
legendaren eredu
- >Kim Salmon & The surrealists. Australia.
rock australiarraren erregeak
- >Kriston. Bermeo. EH. www.kriston.org
ilusioa, energia eta indarra
- >My morning jacket. AEB. www.mymorningjacket.com
egungo rockaren sekreturik izkutuena
- >Pearl Jam. AEB. www.pearljam.com
'pearl jam' euren diskorik rockeroena aurkeztera datoz
- >Uzzhuaia. Valentzia. Estatu espainarra. www.uzzhuaia.com
kritika oso onak jaso dituen taldea
- >Wolfmother. Australia. www.wolfmother.com
zuzeneko indartsu eta dotorea
- >Young Fresh Fellows. AEB.
betiko underground amerikarra

berriz ere gure artean

Iggy Pop eta New York Dolls berriz ere izango dira aurtengo Azkena Rock Jaialdian. Bi talde handi hauek rock jaialdian izango direla baieztatu dute antolatzaileek eta horrela, rock bizi eta kondairazkoa maite dutenak "Iguana" izarraz eta New Yorkeko taldeaz gozatu ahal izango dira atzera Mendizabalako gunean.

erantsitako berriak

Erantsi berri diren taldeen artean ere gehiengo handi bat AEBetatik dator, hala nola, Buckcherry, Marah zein Redd Kross; halere, azken orduko The Nomads eta Diamond Dogs Suediatik datozkigu; eta Euskal Herriatik, Sharon Stoner talde oñatiarra ere badago talde berri hauen artean. Sharon Stoner taldeak Euskal Herriko rock talde onenaren saria eskuratu du 'Bilbao Hiria' Pop-Rock Lehiaketaren 18. edizioan; saria, aurtengo ARFn emanaldi bat eskaintzea.



>>>Marah

'If You Didn't Laugh, You'd Cry' Marah taldearen bosgarren diskoa da eta guztietan onena. Philadelphiatik jatorriz eta Serge eta Dave Bielanko anaien gidaritzapean, Marah egun New York hirian da lanean. Taldearen disko guztiak, jaiotzatik hasita -'Let's Cut the Crap and Hook Up Later On Tonight'- azkenurreko bitxira -'20.000 Streets Under The Sky'-, rockaren himno bilakatu dira, letra bikainak lelo eta doinu ahaztezinekin batzen direlarik. Dudarik gabe zuzeneko da Marah taldearen berezitasuna.

www.marah-usa.com

*Euskal Herritik,
Sharon Stoner
talde oñatiarra,
Kriston
bermearrak eta
Lekunberritik
datozkigun Berri
Txarrak
hirukotea izango
dira ARFren
aurtengo
edizioan*



>>>Diamond Dogs

2000. urtean sortutako musika banda suediarra dugu Diamond Dogs. Beste talde batzuetan lekurik izan ez zuten musika ekoizpenak onartu zituzten haien musika sorkuntzan (Hellacopters, Maryslim, The Soundtrack of our lives). Honela azken garaiotako rock and roll talde bikainenetakoa sortu zen. Bere eraginen artean Rolling Stones, Faces edota Johnny Thunders taldeak ditugu eta argitaratutako disko bakoitzak bere ibilbide musikaren eskaileran gorakada bat ekarri du. 'Among The Non Believers' eta 'As Your Greens Turn Brown' diskoetatik hasita argitaratu berriko 'Up the Rock' eta taldearen maisu-lan izendatu 'Uot, Too Much Is Always Better Than Not Enough' dira haien lan nagusiak. Oilarkeria, hegoaldeko ukituak, aire alkoholiko-festiboak eta Rolling Stones eta Faces taldeen kulunkak nabari dira haien musikan.

www.diamonddogs.info



>>>Sharon Stoner

Maite dituzten taldeen bertsioak (Kyuss, QOTSA...) jotzeko asmotan sortu zen Oñatiko talde hau 2001 urtean. Kontzertu bakarrerako lana izan behar zuenak denboraren poderioz abesti propioak sortzera bideratu zituen oñatiarrak. Egun Euskal Herriko ia lokal guztietan izan dira haien musika eskaintzen eta, esaterako, Kuraia, Los Coronas, Neubat edota Sorkun bandekin kartela konpartitu dute.

www.sharonstoner.com



Zure denda erotikoa

SEX

PITTILIN GORRI

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIARTZUN

Euskadik behar zaitu




IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • ☎ 945 430 079

DIBUtec

Paper Berezioak
Arte Ederretarako Materiala
Ink Jet original en birziklatuak
Bulego Materiala
Enkauternazioak
Plastifikazioak
Kopioak
Kamiseten Estampaketak

azkarprint
Impresu / Inprimategia
Ekoizpen inprimaketak
mota.

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 • 945 23 30 01 - GASTEIZ • INPRIMATEGIA •

LA RIOJANA
jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ

geugasteiz.com



eguneko menua

Xabier
taberna

*musika ona
eta giro ezin hobea*

Aiztogile kalea (KUTXI), 23

Uetzal

Hegoamerikako jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko ertzean) Tfnoa: 945 25 03 52

Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldia
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

HELADOS
Nestlé

bar restaurante
albeniz

Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

Obren egite eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Aterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behean • 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobila: 639 81 51 30

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO. 143883

GASTEIZ

MARRAZKIAK • KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

Dalvez
argitarazleak

diseinu grafikoa
maketazioa

diez de olano kalea, 22
tl: 652 77 65 09
fx: 945 24 52 69
info@dalvez.com



bitxiak / zilarra / osagarriak

ONDO PASA JAIK

serafin ajuria 13-behea | gasteiz 01008 | 945222130



abuztua

>JAIK E.H-N

>>gasteiz. abuztuak 4-9. ikus. gehigarria
 >>bastida / baigorri. abuztuak 1
 >>baiona. abuztuak 2
 >>bera. abuztuak 3
 >>kanbo / lizarra. abuztuak 4
 >>kexaa / baigorri. abuztuak 5
 >>ibarra-aramaio / getaria. abuztuak 6
 >>leitza. abuztuak 10
 >>ainhoa, donibane garazi. abuztuak 11
 >>algorta (portu zaharreko jaiak), ondarroa / deba, zarautz / ziburu. abuztuak 12
 >>langraiz. abuztuak 13
 >>azkoitia / goizueta, tafalla. abuztuak 14
 >>bilbo eta donostiako aste nagusien hasiera / amurrio, artziniega, arai, aramaio, urizaharra, eltziego, gebara, gopegi, andagoia / zarautz / arantza, erronkari, zugarramurdi. abuztuak 15
 >>leza, bilar, iruña oka, laudio. abuztuak 16
 >>gernika. abuztuak 17
 >>urepel. abuztuak 18
 >>amezketa. abuztuak 21
 >>okondo, durana, lapuebla labarka, urrunaga / elgoibar. abuztuak 24
 >>eribera beitia, durana, goardia / bakio. abuztuak 27

>KONTZERTUAK

>>kontsultatu: www.egaztea.com
 >>gasteizko jaiak (ikus. gehigarria): doctor deseo, sixty sexers, trikizio, atom rhumba, obrint pas, su ta gar / sorkun, coti, gose...
 >>bilboko aste nagusia: prodigy, macaco, doctor deseo, berri txarrak, coti, zea mays, kuraia, cham-bao...
 >>sonia vera project: pop-jazz. abuztuak 5. falerina lorategian (montehermoso kulturunean). gasteiz. 20:00etan
